

ÁLVARO
ORTIZ



astiberri
EUSKARAZ



IZAN ERE, SULTANAK, SULTAN IZAN BAINO LEHEN, URTE
OSO BAT EMAN ZUEN ITSASOZ ITSASO, ETA MUNDUKO
TOKIRIK EDERRENETAKO BATZUK EZAGUTU ZITUEN.

HARIK ETA ZORIGAIZTOKO
EGUN BATEAN...




ENBATA ITZEL
BATEK BERA
ZIHOAN ONTZIA
HONDORARAZI
ZUEN ARTE.



ZORIONEZ, UHARTE BATEN
ERTZERAINO IRISTEA LORTU ZUEN.



UHARTEA HUTSIK ZEGOELA ZIRUDIEN ARREN,
LASTER EGIN ZUEN TOPO AGURE BATEKIN,
ZENBAIT URTE LEHENAGO BEREAREN
ANTZEKO EZBEHARRA PAIRATUTAKOIA.



ARTEAN SULTANA EZ ZEN
SULTANAK AGUREAREN
TXABOLAREN ONDOAN ERAIKI
ZUEN BERE ZUHAITZ ADARREZ,
ETA LAGUN MINAK EGIN ZIREN.



ASTIA SOBERA ZUTENEZ, AGUREAK SHATRANJEAN JOKATZEN IRAKATSI ZION.



MENDE BATZUK GEROAGO XAKEA IZANGO ZENAREN ANTZEKOA ZEN JOKOA.



DENBORA LABURREAN, LEHIKIDE BIKAINA BILAKATU ZEN, ETA EHUNKA PARTIDA JOKATU ZITUZTEN.



GOIZ BATEZ, HONDARTZAN PASEOAN
ZEBILELA, SUGE POZOITSU BAT IKUSI
ZUEN SULTANAK, AZERI BATI ERASOAN.



BITAN PENTSATU GABE, MAKILA BATEZ
JO ZUEN SUGEA, ETA HARK IHES EGIN
ONDOREN...



...AZERIA UHARTEKO AGUREA
BILAKATU ZEN, IZATEZ IRATXO
AHALTSUA BAITZEN!





BIZIA SALBATU
DIDAZUNEZ, BETE
EGINGO DITUT ZURE...

HIRU
GURARI!



EDERKI PASATU DUGU BOK
ELKARREKIN, BAINA PENTSATZEN
DUT ZURE LEHEN NAHIA ETXERA
BUELTATZEA IZANGO DELA.

BESTE BIAK, ZEUK
AUKERATU...

ETA EZ
DUZU ZERTAN
ORAIN
ERABAKI.



HALA, IRATXOAK, XIRMI-XARMAZ,
JAUREGIAN AGERRARAZI NINDUEN...

...NON DENEK
HILTZAT JOTZEN
BAININDUTEN!

ETA ZERGATIK
EZ DITUZU INOIZ
BALIATU BESTE
BI GURARI
HORIEK?



EZ BADITUZU ZUK
ERABILI NAHI, NIRETZAT
UTZ DITZAKEZU.



MESEDEZMESEDEZMESEDEZ.
GAINERA, POZARREN IKUSIKO
NUKE IRATXOA!



BAINA SULTANAK, ZUHUR, BETI ESATEN
ZION BI AUKERA BAINO EZ ZITUELA
ETA BENETAN GARRANTZITSUA ZEN
ZERBAITERAKO GORDE BEHAR ZITUELA.



BERDIN ZION ZER AITZAKIA JARTZEN ZUEN
AITA KONBENTZITZEKO: ERANTZUN BERA
JASOTZEN ZUEN BETI.




ARTEAN SULTAN EZ ZENAREN USTEKABEKO
ITZULERAREN OSPAKIZUNAK SEKULAKOAK
IZAN ZIREN, ETA HOGEITA HAMAR EGUN
ETA HOGEITA HAMAR GAUEZ LUZATU ZIREN.



OHIKO BIZIMODURA ITZULI ZIRENEAN, SULTANAK
SHATRANJEAN JOKATZEN JARRAITU ZUEN HIRIKO
JOKALARI ONENETAKOEKIN, JAUREGIRA JOATEN
BAITZITZAIZKION ERRONKA JOTZERA.



URTEEK AURRERA EGIN AHALA, GAUZAK
ALDATU ZIREN: AITA HIL ZITZAION, ETA
ORDUAN BAI, BERA BILAKATU ZEN
SULTAN, ETA FARAHREKIN EZKONDU ZEN.




HANDIK GUTXIRA, AMINA JAIO ZEN.




BAINA, APURKA-APURKA, SULTANA OHARTU ZEN INORK EZ ZIOLA JADA ITZALIK EGITEN SHATRANJEAN. ETA EZ ZEN BERA TREBEEGIA ZELAKO...



...EZPADA ORAIN BERA ZENEZ SULTANA...




...INOR EZ ZELAKO IRABAZTEN AUSARTZEN.



JADA ZER EGIN
EZ ZEKIELA,
JAUREGITIK
EZKUTUAN IRTETEA
DELIBERATU
ZUEN.



ETA JENDEA
SHATRANJEAN ARITZEN
ZEN PLAZETARA JO
ZUEN, HAN JOKATU
AHAL IZATEKO...



...LEHIAKIDEEK JAKIN GABE NOREN KONTRA ARI ZIREN.



BAINA, BEHIN, PARTIDA IKUSTEN ARI ZEN BATEK EZAGUTU EGIN ZUEN.



ETA DISIMULATZEN SAIATU ARREN, ZIZTU BIZIAN ALDE EGIN ZUEN, AZTORATUTA.



SULTANAK PLAZETARA JOATEARI UTZI BEHAR IZAN ZION, EZKUTUAN JOKATZERA JOATEN ZELA ZABALDU BAITZEN. EZINGO ZUEN JADA BERE JOKO KUTUNENEAN ARITU.



TRISTURAREN TRISTURAZ, LOGELATIK ATERATZEARI ERE UTZI ZION. AMINAK, ORDUAN, BERRIRO SAIATZEA ERABAKI ZUEN.



APUR BATEAN PENTSATU ONDOREN, KORRIKA ABIATU ZEN IRATXOAK EMANDAKO BI ILEAK GORDETZEN ZITUEN KUTXATXOAREN BILA.



ERRE ITZAZU, ETA HAN AGERTUKO NATZAIZU ESKATZEN DITUZUN GURARIAK BETETZEKO.

UALA!



IRATXOA ETORRARAZIKO ZUEN ILEA ERRE ZUEN SULTANAK, ETA AMINA ZAIN GERATU ZEN, IRATXOA NOIZ AZALDUKO.



KE URDIN USAINDUNEZ BETE ZEN
GELA. ETA LANBRO MODUKO HURA
GARBITZEN HASI ZENEAN...



...SILUETA BAT AZALDU ZITZAIEN
GELAREN ERDIAN. EZ, ORDEA, HAIK
ESPERO ZUTEN BEZAIN HANDIA.

